



OIARTZUNGO
UDALA

M^a VICTORIA JOARISTI OLARIAGA
ANDEREA, OIARTZUNGO UDAL
AGURGARRIAREN IDAZKARI
NAIZENAK

ZIURTATZEN DUT: Udal honen Tokiko Gobernu Batzarrak, 2009ko apirilaren 1ean, ondorengo Akordioa hartu zuela:

“OIARTZUNGO ITURRIOTZ AUZOKO HORNIKUNTZEN AZPIEGITURA, SANEAMENDUA ETA 22.3 EREMUTIK TONKOLO ZUBIRA ARGITERIA PROIEKTUKO OBREN BEHIN BEHINGO ESLEIPENA BEHIN BETIKO BIHURTZEA.

2009ko martxoaren 10ean Udal honen Tokiko Gobernu Batzarrak, “Oiartzungo Iturriotz auzoko hornikuntzen azpiegitura, saneamendua eta 22.3 eremutik Tonkolo zubira argiteria proiektua” obrak behin behingo izaeraz Construcciones Dumboa S.A.ri esleitzea erabaki zuen, jendaurrean ezagutzera eman gabeko prozedura bidez.

Construcciones Dumboa S.A. enpresak, aurkeztu ditu aurkeztu beharreko dokumentu eta ziurtagiriak eta behin-betiko bermea jarri du horretarako eman zitzaion epean, eta ondorioz, Administrazio Orokorreko Teknikariak egindako txostenarekin adostasunean, aho batez, “Oiartzungo Iturriotz auzoko hornikuntzen azpiegitura, saneamendua eta 22.3 eremutik Tonkolo zubira argiteria proiektua” obrak behin-betiko Construcciones Dumboa S.A. enpresari (NIF A-20135935) esleitzea erabaki da. Kontratuaren prezioa 73.965,52€koa da (BEZ kanpo). BEZa 11.834,48 koa da. Beraz, kontratuaren prezioa guztira 85.800,00 €koa da.

Bestalde, egikaritze epea 5 astekoa da eta obran 5 pertsona okupatuko ditu, 2 enpresan integratutakoak eta 3 kontratazio berrikoak.

Halaber, proposamenak aurkeztu baina esleituak gertatu ez diren enpresei, proposamenarekin batera aurkeztutako behin behingo abalak itzultzea erabaki da, kasu honetan ondorengo enpresei:

- Construcciones Alzola S.A.
- Asfaltos Orsa S.L.
- Erreti Eraikuntzak S.L.”

Eta horrela jasota gera dadin ematen dut ziurtagiri hau, azaroaren 28ko 2.568/1.986 Errege Dekretuaren 206 artikulua arabera, Alkate Jaunaren agindu eta oniritziarekin batera, Oiartzunen, bi mila eta bederatziko apirilaren batean.

O.E.
ALKATEAK,

